

**Estatutuz kanpoko** Hitzarmenak. Alfabeto – hurrenkeran daude, eta datak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko argitalpenari dagozkie

Arabako Lurralde Historikoko eremua

Hitzarmena	Eremu - Funtzionala	Argitaratze - datak			
Arabako etxez etxeko laguntza zerbitzua	Hitzarmen honek 4. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, enpresa, erakunde eta elkarte guztiak behartzen ditu, edozein izanik ere horien formalizazioa edo zein estaldura juridikoren pean lan egiten duten, betiere hitzarmenaren lurralde-eremuaren barnean egonik, beren autonomia mugatua duten pertsoneri zerbitzu publikoak nahiz pribatuak eta etxez etxeko laguntza izeneko zerbitzuak, edo gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartze zerbitzua eta atsedeen programa izeneko zerbitzuak edo haiek ordezkatzeko dituztenak betetzen dituztenak, bai etxebizitza partikularretan, bai etxe babestuak deiturikoetan, bai eguneko arretako landainguruko zentroetan, tutoretzapeko apartamentuetan eta etxebizitza komunitarioetan	<a href="#">2023/05/03</a>			
Arabako nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerako sasoikako lanerako	Sasoiko lanari buruzko hitzarmen honetan, nekazaritza eta abeltzaintzako enpresetan nekazaritza-peoi gisa diharduten sasoikako langileen gutxieneko lan-baldintzakarakatzeko oinarritzko arauak ezartzen dira soilik. Beste eremu batzuetan ere aplikatu badaiteke ere, mahats-bilketan, patata biltzeko kanpainan eta sasoikako lanaren beste zenbait eremutan (kimaketa, udaberriko kimaketa eta abar) diharduten sasoikako langileei aplikatuko zaie.	<a href="#">2016/11/09</a>			

<p>Arabako bidaiarien errepideko garraioaren industriarako eraginkortasun mugatuko hitzarmen kolektiboa</p>	<p>Hitzarmen kolektibo honek bere eraginpeko enpresa guztietan aritzen diren langile guztiak barne hartzen ditu, finkoak, aldi baterakoak edo bitartekoak direla, betiere gaur egun euren zerbitzuak bertan ematen badituzte, eta baita haren iraunaldian enpresan hasten direnak ere</p>	<p><a href="#">2022/12/22</a></p>	<p><a href="#">2023/03/27: 2022, 2023 eta 2024 urteetako soldata taulak</a></p>		
<p>Arabako metalaren merkataritzarako sektore-eraginkortasun mugatuko estatutuz kanpoko hitzarmen kolektiboa</p>	<p>Hitzarmen honek bere lurralde-eremuan sartzen diren eta metalaren merkataritzan aritzen diren enpresa guztiei eragingo die. Hitzarmen kolektibo hau, sinatzen den egunean, eraginkortasun mugatukoa izango da. Enpresak hitzarmena langile guztiei aplikatzea erabakitzen duenean, langile horiek atxikitzat joko dira, baldin eta aplikazio hori hasi eta hurrengo 30 egunetan langileak ez badu modu frogagarrian jakinarazten berau ez aplikatzeko nahia. Aurretik xedatutakoa kontuan hartuta, hitzarmenaren eremuan sartzen dira bertan jasotako enpresaren baten kontura lan egiten duten langileak, edozein dela ere haien lanbide-kategoria. Era berean, enpresa horietako plantillakoak izan ez arren, hitzarmen kolektiboa onartu eta indarra duen bitartean lanean hasten direnak ere barne hartuko ditu.</p>	<p><a href="#">2024/03/25</a></p>			

## Gipuzkoako Lurralde Historikoko eremua

Hitzarmena	Eremu - Funtzionala	Argitaratze - datak
------------	---------------------	---------------------

<p>Gipuzkoako Fruta eta Barazki Handizkariak</p>	<p>Hitzarmen honek fruta eta barazki handizkarien industriako enpresa guztiak ukituko ditu, eta langile guztiei aplikatzekoa izango da.</p>	<p><a href="#">2019/09/03</a></p>			
<p>2022-2024 urteetarako Gipuzkoako adinekoentzako egoitzen sektoreko Lan Hitzarmen kolektiboa, estatutuz kanpoko eta eraginkortasun mugatuko</p>	<p>Eraginkortasun mugatuko hitzarmen hori nahitaez bete beharko dute ACGG, Lares eta Adegri enpresa-erakundeei atxikitako enpresek eta UGT sindikatuko afiliatuek. Era berean, gainerako pertsoneri ere aplikatu beharko zaie, 3. artikuluan aurreikusitako moduan</p>	<p><a href="#">2022/09/30</a></p>			

## Bizkaiko Lurralde Historikoko eremua

<b>Hitzarmena</b>	<b>Eremu - Funtzionala</b>	<b>Argitaratze - datak</b>			
Bizkaiko Siderometalurgia Industriakoa		<a href="#">2008/11/21</a>			